

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Lorra

BASOA GURE ETORKIZUNeko energia iturri bihurtu behar dugula esaten dudanean, ez dut duela mende beteko jendartearen bizimodua goraiatzeko, ez dut lorrean aritzen zen idi-buztarri haren abiadurara makurtu nahi. Gure lurra eman ahal duen etekin onena zein den aztertzea besterik ez dut proposatzen. Gure basoaren aberastasuna nora bideratu, nola arteztu. Hirigintza ez beste, lurrari lotutako langintzetan ari den jende asko lur jota dago. Basogintzan ari direnak baina, ezin beherago hondoratuta, lurra ez, erreka jota.

Zuhaitz arteko langintza horretan irtenbidea bakarra da: aldaketa. Aldakuntza omen da betikoa den gauza bakarra eta burutu dezagun, bada, orain ere. Ez dago denbora alferrik galtzerik. Ez gaude astia eman eta denbora-pasa egoteko moduan. Errotiko aldakuntza nahitaezkoa da. Datorren belaunaldiak eta, batez ere, hurrengoak zer baso izango duen erabaki beharrean gara, ezinbestean. Etsi-etsian gaurko txepelkeria utzi eta erabaki historikoak hartzea da gure eginbidea. Eta hori egiteko era bakarra dago: denon

artean. Denok elkar hartuta. Administrazio publikoak zeresan handia du, baina herrigintza da hau, denona, herrilana. Helburuak, helburu horietarako bideak, bide horiek gauzatzearen adierazleak, adierazle horien jarraipena eta jarraipen horren emaitzak, denak lotzea da eginbeharra. Maila guztietan arautuko den filosofia adostu eta gero. Horra hor koxka. Eta filosofian betiko galderaren estutasuna: norbana-koaren alde edo herriaren alde. Basoak denona behar du. Horra eredu, herriaren basoa.

Ondo planifikatu eta taxuz antolatuz gero egurra onroso eman eta euskaldunon energia beharraren zati handi bat ase dezake. Garai bateko herri-basoak bezala. Unamunok ederki asko jaso zuen lorra lanean bezala. Denon artean. Denon artea beharko da.

Gure zuraren balioa ez baina prezioa lur jota dabilenean, zur-papurra, peleta, ezpala... Dena egokia izango da etorkizuna berotzeko.

Hara, non arraio piztu ote zait baso-berritzearen aldeko su hau?



WOUTER HAGENS



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Galdera bat egin nahi nizuke: estakak egiteko, alkazia zer ilargitan bota behar da?

Miriamgoitia-k www.argia.com-era bidalia.

Kaixo. Alkazia edo sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*) estakak, hesolak, baldoak, taketak edo zutoiak egiteko bota nahi baduzu, ahal den gogorren zurrunen eta luzeen iraunaraziko dion sasoian botatzea komeni da. Izerdi gutxiena duenean, negu-neguan, alegia. Ilargiari dagokionez, bestela dioen jendea bada ere, nire ustez ilbeheran bota behar da. Aurtengo neguari begira jarrita, abenduaren 10etik 23ra artean eta urtarrilean 6tik 19ra artean dira egun egokienak.

Sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*).



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.